

Castinga

–Kaixo! Aimar naiz. Bilboko naiz, baina Gallartan bizi naiz. 20 urte ditut, Kazetaritza ikasten ari naiz eta irratian nabil praktikak egiten. Alaia, berritsua eta dibertigarria naiz.

–Hepal! Jare naiz. Gallartakoa naiz eta Gallartan bizi naiz. Batxilergoa ikasten ari naiz eta asteburuetan zerbitzaria naiz jatetxe batean. Ez naiz oso berritsua, isila eta lotsatia naiz.

–Kaixo! Ane naiz. Ni Ortuellan bizi naiz, baina beti egoten naiz Gallartan. 16 urte ditut eta moda-diseinatzailea izan nahi dut. Orain goizez arropa-denda batean egiten dut lan eta, arratsalde, akademiara joaten naiz. Oso ordenatua naiz, langilea eta ausarta.

–Lagunak gara. Eguraldi ona egiten duenean, eskalada eta mendi irteerak egiten ditugu. Asko gustatzen zaigu kirola egitea.

–Eta bazkari ederrak prestatzea. Denbora daukagunean, bazkari bereziak prestatzeko elkartzen gara. Oso sukaldari onak gara.

–Asteburuetan, lagunekin ateratzen gara eta kontzertuetara joaten gara. Musika-talde berriak ezagutzea gustatzen zaigu.

–Lehiaketan parte hartu nahi dugu erronkak asko gustatzen zaizkigulako eta jende berria ezagutu nahi dugulako. Gainera, badakigu gauza dibertigarriak egiten. Begira!

–Beitu, nik badakit txirula sudurrarekin jotzen.

–Eta nik badakit animalien ahotsak imitatzen, entzun: zaunk, zaunk

–Nire gurasoak Galiziakoak dira, eta badakit Muñeira dantzatzen.

–Tira, ba, horiek gara gu.

–Laster arte... Adioooo!!!!